

Ereserkiak

Joxean AGIRRE

Kontatzen zutenez, Borges eta Bioy Casares, oso belarri txarrekoak izaki, kanta solemne bat entzun orduko zutik jaritzen omen ziren, badaezpada, Argentinako ereserkia izan zitekeelakoan.

Ereserkien hilabetea izan da hau eta selekzioetako futbol jokalaria ikusi ditugu behin eta berriz paparra puztuta kantuan.

Fronte Popular Berriko jendea ere ikusi genuen hauteskunde gauean Internazionala kantatzen. Seguru nago haien artean eta selekzioetan ere bazegoela ereserkien letrarik ez zekienik eta ahoa mugituz itxurak egiten zituenik. Halaxe egingo nukeen nik ere, ez baitakit kanta bat osorik. Neuk asmatu beharko nituen, Iñaki Murua bertsolariak elizan egiten zuen moduan. Egia esan, egokitu izan zait hiletaren batera joan eta elizako pantailan jartzen dituzten salmoak

txarrak iruditu eta neurria eta errimak hobetzen jardutea, eliza ere ez baita lehengoa.

Tarteka, autoan noala, herriko Arraio irratiak Euskadi Irratia zapaltzen didalako, dila mugitzen hasi eta Radio Maria ateratzen zait, apaiz baten ahots melen-ga meza ematen. “Egun osoa meza ematen pasatzen ote du gizajo honek?”, galdetzen diot neure buruari, lehenik, eta zergatik ote dauden gaurko apaiz eta go-tzainen artean horrenbeste ahots anbiguo, ez binario eta kuir, ondoren. Non daude gure garaiko Agirretxe, Odriozola eta abar luzearen ahots sendo haiek, guztiz gizonezkoenak?, jarraitzen dut galderak egiten.

Radio Maria utzi eta itzultzen naiz Arraiora edo itzaltzen dut irratia eta gogoratzen naiz laster, ereserkien hilabete-ari amaiera emateko, Inazio gure patro-roi handiaren eguna dugula eta hasten

naiz santuaren martxa kantatzen, ia osorik dakidan ereserki bakarra baita, bere kutsu militaristak inpresioa egiten didalako seguru asko. “Inazio, gure patro-roi handia/Jesusen Konpainia/ fundatu eta duzu armatu/ ez da, ez, etsairik/ ja-rriko zaizunik/ inolaz aurrean/ gaurko egunean/ nahiz betor Luzifer deabrua/ utzirik infernua” hasten da eta “Inazio hor dago/ beti ernai dago/ armetan ja-rria/ dauka konpainia/ txispaz armatu-rik/ bandera zabalik...”. Bufl, hori bai dela benetako ereserkia, diot nirekiko, egilea ezagutzen ez badugu ere.

Peio Dufau ez nuen ikusi Internazionala kantatzen, baina, askoz meritua handiagoa duena, gitarra lepotik zintzilik, Hodei Barrosoren hitzen batzuk kantatzen sumatu nuen Baionako festetan Izate taldearekin edo Ilumarekin, ez dakit. Ez nuen ukabilik altxatu, baina “Hi haiz, hi” atera zitzaidan. •

Batzuk udalekuetan gaude

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Orriotan irakurtzen ari zaren bitartean Trumpen belarri zauritua, Palestinako eguneko hildako kopurua, Pogacarren maillot horia, euskal selekzioaren aldarria, Baionako eta Iruñeko festetako eraso zerrenda (eta Santurtzi-koa, eta Ugaokoa, eta Betharramgoa, eta...), enegarren etxegabetzea, polizia- ren indarkeria, Urdaibai, Williams eta Oyarzabal, itsasoak utzitako migrante-ak, turismoa, eta gaurko egunez ez-dakit-noiz gertatu zen ez-dakit-zer, batzuk udalekuetan gaude. Argitxorik egiten ez duen erlojuaren eta beti egia iragar- tzen ez duten lainoen mende berriz ere.

Mendira igoz, mahaitik jaitsiz, jolas random-ak ezagutuz, abestuz, eguzkita-ko krema zabalduz, gutxi durtatuz eta melokotoiak janez. Ematen du ezetz, baina pila bat aldatzen da bizitza derre- pente udalekuetan. Eta iruditzen zait hori dela presak eta denbora okupatu beharrak lehentasun izateari uzten dio- telako eta jolasa bihurtzen delako egin- behar bakar. Bete behar dira ardurak, zaindu behar dira umeak, konpondu behar dira liskarrak, eta literako han- kak; ez dago deskantsurako, gauari la- purtzen dizkiogun orduz gain, minutu gehiegi, baina nago mantsotzen dela zerbait udalekuetan, aldatzen dela zeo-

zer. Zaila da “bizitza errealean” bezala bizitzea udalekuetan.

Pentsatuko du baten batek pixka bat esajeratzen ari naizela udalekuen idea- lizazio sonatua. Ez dut sinesten hain guaia denik dena, ez, segituko dut orriotan egiaz-inporta-duten-gauzak irakurtzen hemendik pixka batera. Bai- na tarte batez ezertaz ez enteratzea denbora gelditzearen antzekoa delako, gustuko dut urtean behin, pare bat as- tez, hemen egotea. Izan ere, egotea ba- da zerbait; beti ez dago zerbait egin beharrik.

Bueno, kontua da hemen oso ondo nagoela; banoa gitarreo-ra... •